

the balde




0€

abuztu 1 iraila
agust 1 septiembre

zeruko lorazaina
gardener of the sky

2 3



the balde

marzelo zelaieta 75
13. bulegoa
31014 iruñea
t. +34 948 12.19 76

kristobaldegi 14
20014 loiola donostia
t. +34 943 44 44 22

info@thebalde.net

publi@thebalde.net
m. +34 639 20 80 22

www.thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin.com · komunikazioa eragin sll

editore / editor: iñigo martinez

zuzendaria / director: koldo almandoz

diseinu burua / head of design: martin etxauri

zuzendari komertziala / comercial director &

publizitatea / publicity: mireia mugika

publizitatea / publicity: edu pinillos

diseinua / design: txuma vazquez, unai abarzuza, sonia beroiz, juan luis napal, igor astigarraga, angel burgaña, ekaitz auzmendi, berta osés, martin etxauri

itzulpenak / translations: smiley, amaia orella

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: uxeta labrit, arkaitz billar,

myriam gartzia, igor etxabe, paola anizché

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: igor etxabe,

paola anizché, uxeta labrit

web orria / web page: ainara gorostiaga

ale honetako komikia / comic this issue: txo!?

ale honetako harpidetza orria / subscription page:

maite gurrutxaga

inprimategia / printed at: espacegrafic.

lege gordailua / legal: na-3244/01



www.creativecommons.org

www.thebalde.net



Ian berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:
imaginative, provocative and interesting works? send them to:


info@thebalde.net

LABURRAK IN BRIEF

NEWSBREAKERS!!!

Telebista ikusten ari garenean, aurkezlearen atzekaldean pitokeriak egiten dituen norbait azaltzen da batzuetan. Web orri honetako protagonistak, zuzeneko konexioak egiten dituzten kazetarien lana sabotatzen profesional bihurtu dira. Gizon ikustezinez mozarrotuta edo apaiz sermoilari gisa, dozenaka konexiotan azaltzea lortu dute. Euren interbentzioen argazki, bideo eta abarrak honoko helbidean:

www.newsbreakers.com




NEWSBREAKERS!!!

When we are watching TV, we can always find someone who is playing fool behind the host. The protagonists of this web page have become professionals by sabotaging the journalists when they are broadcasting live. They are disguised as the invisible man or a priest and had appeared in many broadcasts. Pictures and videos of their contribution are found in this address:

www.newsbrakers.com


ZURE ALABARENTZAT DESIO EZ DUZUN SENARGAIA



ABEL FERRARA DONOSTIAKO 53. ZINEMALDIAN (IRAILAK 15-24)

Harvey Keitel Bad Lieutenant filman ikusi duenak, edo Christopher Walken The Funeral-en badaki Bronx-en jaiotako zinegile honen filmak masail hezurera zuzenduriko muturrekoak direla. Underground zinearen adibide garbienetakoa den Ferrarari sail osoa eskaini dio aurtengo Donostiako Zinemaldiak. Bere ibilbidea gora beheraz beteta egon da eta bere bizitzak film baten gidoia dirudi...Abel Ferrararen pelikula baten gidoia hain zuzen.

www.sansebastianfestival.com/



AZKENA ROCK...(IRAILAK 2,3)

Gasteizen ospatzen den musika jaialdi honek aruten ez du kartel bat osatu: Rock'n rollaren iragana, oraina eta etorkizunaren zutabe nagusienetakoak ekarri dizkigu. Bi egunetan eta hain gertu ez dituzu sekula ikusi eta entzungo berriro. Apuntatu agendan edo tatuatu ezazu eskumuturrean: Azkena lehenengoa izango da.

www.azkenarockfestival.com

AZKENA ROCK EXPLOSION




AZKENA ROCK...(SEPTEMBER 2,3)

This year music festival in Gasteiz is not just a festival. It brings the most important representatives of the past, present and future of Rock n' Roll. You will never be so close to them only in two days. Write it down in your diary or tattoo it in your wrist. The last will be the first.

www.azkenarockfestival.com

ABEL FERRARA IN SAN SEBASTIAN FILM FESTIVAL (SEPTEMBER 15-24)

The person who has seen Harvey Keitel in Bad Lieutenant or Christopher Walken, in The Funeral knows that the films of this director born in the Bronx are a punch in the cheekbone. The San Sebastian film festival has offered a complete section to Ferrara, a clear example of the Underground cinema. His life is full of ups and downs and it seems a script, the script of a film by Abel Ferrara.



1001 WAYS OF DOING GRAPHICS

TXOKOLARTE...

Grafismoak ez du mugarik. Eta txokolarte kolektiboak urteak daramatza baieztapen hau lan moeta ezberdinekin adibidez betetzen. Zure herriko kaleetan papera zabaldu eta zapalgailu batekin aurrera eta atzera ikusten baduzu, zalantzarik gabe txokolarteko kide bat izango da.

www.txokolarte.com

TXOKOLARTE...



Graphics has no limits. This is exactly what the Txokolarte collective has tried to show us through different examples. If you see someone spreading some paper with a steam roller is most likely to be a member of Txokolarte.

www.txokolarte.com



ESKU BILDUMA

Haurtzarotik daukagu obsesioa eskuekin. Errotulagailua hartu eta gure eskuak margotzeari ekiten genion haurtzaindegi garaietan hasi, azterketetako txuletetatik pasa eta egun edozein telefono edo helbide apuntatzeko erabiltzen dugun koadernoa da eskuia. Eta hori baino gehiago. Arterako mihise ere bihurtu zaigu. Bisitatu bestela esku bildumazale honen web orria.



BAD GIRLS HOTEL


Bad girls don't go to heaven...but they have much more fun than the well-behaved. They find heaven in a cheap and dark motel in a road, drinking beer, tattooing their skin and soaking the sheets. You can know them in this web page. Church would probably deny these goddesses the permission to form a family.

www.badgirls.com

BAD GIRLS HOTEL

Neska gaiztoak ez dira zerura joaten...baino txintxoak baino askoz gehiago dibertitzen dira. Zerua errepide bazterreko motel merke eta ilunetan topatzen dute, garagardoa edanaz, azala tatuatuaz eta izarak bustiaz. Webgune honetan ezagutu ditzakezu. Elizak ziurrenik familia bat osatzeko baimena ukatuko lieke jainkosa hauei.


www.badgirls.com



THE HAND COLLECTOR

We are obsessed with hands from childhood. Hands have turned into notebooks: In the day nursery, we used to take a marking pen and draw in our hands. Then we wrote in them our cribs for exams and nowadays we write down many telephone numbers and addresses. But, besides, it has become a cloth for art. Visit the web page of this hand collector:

www.robottle.com/hands/gallery.htm



SORKUN

TT L.T.

BETAGARRI

KURAIIA

BIOK

SAN FAUSTOko JAIK 2005

URRIAK 15 OCTUBRE

ZAPATUA / SABADO

LANDAKO ERAKUSTAZOKA

DURANGO

20:00 • DOAN • GRATIS



LABURRAK IN BRIEF

IGGY POP BILBON!

Bilboko Aste nagusia, berriro ere nagusi. Donostiako udalak, azken urteotan Aste Nagusiko kontzertu programazioan, iritsi eta gustu guztiak asetu nahian behin eta berriro kale egin du. Ez da oroimenean gordetzeko kontzerturik izan aspaldian Easo Ederrean. Bilbon ordea asmatzen jarraitzen dute. Urtero kontzertu erraldoi bat antolatzen dute muxutruk. Aurten, Detroit-eko Iguana ekarriko dute. Gisa honetako bilbainadak maite ditugu



IGGY POP IN BILBAO!

The Aste Nagusia in Bilbao is once again supreme. In these last years the town hall of Donostia has tried to fulfill the wants and tastes of everyone in the concert program of the Aste Nagusia but hasn't succeeded. Lately, we haven't seen any memorable concert in this town. However, the situation is completely different in Bilbao. A huge concert is organized every year for free. This year they bring the Iguana of Detroit. We love this type of "bilbainada".

ANOTHER REASON TO LOVE CRIMINALS



ART CRIMES

Grafitia. Artea krimen bihurtuta. Askea, anarkikoa eta negoziarako balio ez zuen jarduera izanik delitua bihurtu zuten paretak margotzea. Santimamiñeko kobetako margoak eta egungo hirietako paretak margotzen dituztenen arrazoiak ez dute ordea ia alderik. Talde errito izateaz gain, besteengandik bereiztea, izaera propioaren aldarrikapena ezkutatzen da adierazpen artistiko honetan. Mundu osoko paretetan egindako krimenak ikusi ahal izango dituzue ondorengo helbidean.

www.artcrimes.org



ART CRIMES

Graffiti. The art turned crime. Being a free and anarchic activity that wasn't good for business, the art of painting walls was turned into a crime. The reasons of the ones who did the painting of the cave of Santimamiñe and the drawings in the city walls are similar. Apart from being a group rite, there is a declaration of own personality and originality hidden in this artistic interpretation. The crimes committed in all the walls around the world are shown in this address:

www.artcrimes.org

Freskotasun eztanda



BOSS IN MOTION EDITION

Coolness explosion



zer jantzi?



diseinu grafikoa
komunikazioa
web diseinua
irudi korporatiboa
edizioa
maketazioa
ilustrazioa
packaging
publizitatea

estudio**bitarte**


marcelo celayeta 75 of. 14. 31014 iruñea
t. 948 38 21 22. f. 948 38 21 22
bitarte@estudiobitarte.com
www.estudiobitarte.com



KOLDO MITXELENA Kulturunea

Urdaneta 9 - 20006 DONOSTIA
tel 943 112 893
sala@gipuzkoa.net
www.gipuzkoakultura.net

GAN BA RA



ZURIARRAIN
07.20 - 09.24

ERA KUS TARE TOA



iraultza ostean
Irango artista garaikideak
07.21 - 10.01



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura



LABURRAK IN BRIEF



IRAILEKO OLATUAK NESKENTZAT. (ZARAUTZ 11-12)
 lazkoaren arrakastari segida eman nahian aurten ere Nesken Surf Biltzarra antolatuta Zarautzen. Adin guztietako surflariak bilduko dira txapelketatik haratago doan bilera honetan. Hondartzan, parte hartzaileen artean giro ederra izaten da eta uretan surf saio ikusgarria. Ana Urrutiak ziurrenik olatu ederrak iragarri nahi lituzke...orain, falta den gauza bakarra Neptuno harekin ados egotea da.

www.euskalsurf.com

SEPTEMBER WAVES ARE FOR GIRLS. (ZARAUTZ 11-12)
 Due to the success of last year's meeting, a new girl surf meeting has been reorganized. There will be surfers of all ages in this meeting that goes beyond a simple contest. There is a good scene going between the participants and wonderful surf sessions in the water. Ana Urrutia would like to predict beautiful waves... we hope Neptune agrees with her.

www.euskalsurf.com



BIKINIS BREAKING BLUE LIPS

ABUSEMAGAZINE.COM
 Sarean gero eta aldizkari gehiago ari da azaltzen. Blog-ekin gertatzen den moduan, saiakera zatarrak eta gutziak bereiztea geroz eta zailagoa da. Guk Abusemagazine.com deskubritu eta merezi duela uste dugu. Ez dakigu luze irauteko proiektua ote den edo ez...eta horregatik ahal dugunean bisita egiten dugu.

ABUSEMAGAZINE.COM

More and more magazines can be found in the net. This is the case of Blog; it is becoming difficult to differentiate bad attempts from good ones. We discovered Abusemagazine.com and although we aren't sure if it will last long....that's exactly why we recommend it.

TIPOGRAFIK


Tipografiaren jolastea atsegin dugu. Gure filosofiaren zirikusi handia da tipografiaren. Hizkiak ez dira sinbolo soilak. Hizki bera modu ezberdinetan idatzi eta islatu daiteke. Eta isla horietako bakoitzak erreflexu ezberdin bat eskaintzen du. Bisitatu eta zure frogak egin ondorengo web orrian.

TYPOGRAPHY

We like playing with typographies because they are closely related to our philosophy. Words aren't mere symbols. The same letter can be written and reflected in many ways and each of these reflections offer a different reflection. Visit the page and have a go:


www.metaatem.net/words.php

abuse
 magazine




HIZKI JOLASAK





route 66:
the main street of
america,
the mother road



"Easy", she said. "You got to have patience. Why, Tom – us people will go on livin' when all them people is gone. Why, Tom, we're people that live. They ain't gonna wipe us out. Why, we're the people – we go on." "We take a beatin' all the time."
"I know." Ma chuckled. "Maybe that makes us tough. Rich fellas come up an' they die, an' their kids ain't no good, an' they die out. But, Tom, we keep a-comin'. Don' you fret none, Tom. A different time's comin'." And the companies, the banks worked at their own doom and they did not know it. The fields were fruitful, and starving men moved on the roads. The granaries were full and the children of the poor grew up rachitic, and the pustules of pellagra swelled on their sides. The great companies did not know that the line between hunger and anger is thin line. And money that might have to wages went for gas, for guns, for agents and spies, for blacklists, for drilling. On the highways the people moved like ants and searched for work, for food. And the anger began to ferment. Now Tom said "Mom, wherever there's a cop beatin' a guy, wherever a hungry newborn baby cries. Where there's a fight 'gainst the blood and hatred

in the hair, look for me Mom I'll be there. Wherever there's somebody fightin' for a place to stand, or decent job or a helpin' hand. Wherever somebody's strugglin' to be free, look in their eyes Mom you'll see me." Well the highway is alive tonight, but nobody's kiddin' nobody about where it goes. I'm sittin' down here in the campfire light, with the ghost of old Tom Joad.



shots/argazkiak: igor etxabe







- Lasai - bota zuen emakumeak. - Pazientzia pittin bat behar duzu. Zera Tom, guk bizirik iraunen dugu beraiek hiltzen diren bitartean. Zera Tom, bizirik dirautenak geu gara. Ez gaituzte desagere araziko. Zera Tom, gu gara - gu beti diraugu.

- Baina beti jipoitzen gaituzte.

- Badakit - emakumea barrezka, - horrek koskortzen gaitu igual. Gizaseme aberatsak agertzen dira eta hil egiten dira, beraien semeek ezertarako balio ez dute, eta haiek ere hiltzen dira. Gu berriz, Tom, gu beti present. Ez kexatu Tom. Garai berria dator.

Eta enpresak beraien akabera lantzen zuten, jakin gabe. Soroak emankorrek ziren, eta errepideetako bazterrek gosez zorabiatzen gizez beterik. Aletegiak lehertzen, eta pobreen haurrak errakitismoak jotak, kaparren pikortak bizkarretan ageri zirelarik. Enpresa handiek ez zekiten gose eta haserrearen arteko marra mehea zela oso.

Eta soldadak ordaintzeko sosa gasa, arma, agentzia, espioia, zulatzea eta zerrenda beltzetan gastatuak izan ziren. Gero, errepide guztietan, jendea xinaurriak bezala, lan bila, jateko bila. And haserrea handituz zihoan.

Tomek zioen - Ama, poliziak gizaseme bat jipoitzen duen



lekuan, gosez amorratzen den jaioberriaren negar malkoen tokian, airean dauden gorrotoa eta odolaren aurkako borrokaren lekuan bila nazazu, hor egonen naiz eta. Leku bat zutik egotekoaren alde borrokan dabilenaren begietan, edo lan duin bat edota laguntza behar duenaren begietan. Askatasunaren alde sutsu ari denaren begietan ikusiko nauzu ama.

Errepidea bizirik dago gaur gauean, baino nora doan ez da inolako txantxa. Hementxe nauzue suaren ondoan eserita, Tom Joad zenarekin.






Crepel - Jaiëter

Salamanca pasealekua, 3 20003 Donostia • 943 42 40 40

SUMMER

SUN...



ENGLISH

FUN!

www.lacunza.es

LACUNZA

ih A MEMBER OF THE INTERNATIONAL HOUSE WORLD ORGANISATION



argazia / shot: uxeta labrit

hellsinki

no
com-
ment

no
com-
ment

no
com-
ment

no
com-
ment

no
com-
ment

no
com-
ment

This is the second edition. That means the first one was very successful. Is the festival rising?

First of all, we would like to underline the fact that both success and its interpretation have many levels and acceptations... therefore, the first edition of the festival –in spite of its low budget- was pioneer and a good start that we hope will turn into a long path that will help us learn and share.

The truth is that we were really happy with the results of the last edition, above all when we see the positive and generous involvement of our collaborators which has encouraged us to contact this time projects and videographs from 3 different countries (South and North America, Africa and Europe.)

We are happy to offer a trilogy of independent videos (that is, not used as a promotional tape of a manufacturing company of the sector) that show the scene of 3 occidental metropolis such as New York, Berlin and Madrid. Besides, we have a great quality video recorded by the feminine skaters group "Villa Villa Cola" and videos from "exotic" countries such as: Slovenia, Argentina and South Africa!

Apart from the video projections...you also organize video workshops...is interactivity important in this kind of activities?

The truth is that we have been in contact with Ernest Lluch, the culture centre of Amara, with the idea of organizing some workshops about the auto-edition of the domestic video which nowadays offers semi-professional possibilities to everybody with a minimum access to the required technology (a digital video camera, wide-angle lens and a lap top). We selected this place due to its closeness to the skatepark of Anoeta. We had the intention to offer this to all the boys and girls from 13 to 20 that haunt this skating park. Institutions are conscious that many creative people escape them (who they cannot define as users of their service) due to the fact that the activity they carry out is so ephemeral... A good example of this is the first edition of graffiti Representa04 last summer: Although organizers were looking for the "artistic" spot of the movement (by painting exhibits and making a colourful mural in a public and degraded wall) and had the support of the mentioned culture centre, they couldn't avoid the restriction of the repetitive major of the Bella Easo who has banned the continuity of this event.

In the program you also mention the project of a skating sculpture and we found the reflections on the street very interesting...tell us something about this...

All this came out when we contacted Winstan Whitter from England last fall. He has made an interesting documentary about the history of skateboarding in the area around London ("Rollin' trough the decades"). In his web page there was a link to the project "Moving Units" that consists of placing some skating sculptures (with an extreme similar to the traditional urban furniture) all around the English capital. Later there was a fabulous article in the Kingpin Skateboarding Europa that encouraged us to try to do the same.

The project is still being developed because we are thinking about buying a granite module (those in which the pedestrian sits down) similar to those in the Kursaal avenue in Donostia or Uribitarte, close to the Guggenheim in Bilbao. Then we would place it in an undetermined public place in a camouflaged way so if a skater is going to be fined for skating over this, she or he can say that she/he was skating over a structure that is illegal. The transgressor Sevillian architect Santiago Cirugeda was very influential in this idea that wants to find little slots in the law and use them for the happiness of the anonymous citizens.

You also organized an activity in Arteleku that combined skating and art...

That's right. The festival this year is due to begin the 28th in the morning in the conference hall in Arteleku. We will start with a press conference and some important guests: German Christian Roth of Hessenmob skateboards (his documentary about skate-art "Mobernist" will be shown the same day in the afternoon), Carlos Purillo from Bilbao, as a representative of the most international Basque company "Alai skateboards" and the Iraola brothers of Jart factory (a pioneer skateboard factory in Europe) from the frontier Irun.

We pretend to create an ideal space for the guests so they answer to some questions related to the importance of video production in the skateboard world. There is a huge gulf in the cultural production in skateboarding and we chose to look into the history of this in relation to the videographic document... which offers many athletic, aesthetic and urban information and so, anthropologic. All of the sessions and video projections and completely free so we hope to see you all there!!!

irailak
28
urriak
02
september
28
october
02
street
zinema
2005





**Aurtengoa 2.
edizioa da. Horrek esan
nahi du lehenengoak arrakasta izan
zuela. Asko hazi al da zinemaldia?**

Hasteko esan arrakastak eta honen irakurketak, maila eta onarpen ezberdinak izan ditzakeela... beraz iruditzen zaigu jaialdiaren lehendabiziko edizioa -aurrekontu murrizta kontutan hartuta- lehendabiziko urrats garrantzitsua izan zela eta ikasi eta esperientziak trukatzeko bide luzea ireki izana espero dugu. Egia esan oso gustora geratu ginen pasadan urteko emaitzekin, batik bat gure kolaboratzaileen esku zabaltasuna eta laguntza ikusita, eta horrek, aurrean, 3 kontinenteetako (Hego eta Ipar Amerika, Afrika eta Europa) bideoegile ezberdinekin kontaktuan jartzera bultzatu gaitu. Bideo independenteak eskainiko ditugu (hau da, ez dira sektoreko enpresen zinta promozionalak) eta hauetan New York, Berlin eta Madrid bezalako mendebaldeko metropoli eszena ikusi ahal izango da. Gainera kalitate izugarria duen "Villa Villa Cola" nesken kolektiboak eginiko bideo bat ere badugu eta Eslovenia, Argentina edo Hego Afrika bezalako herrialde "exotikoetatik" iritsitako lanak ere badira.

Bideo proiektioetat gain...bideo tailerrak antolatzen dituzue...interaktibitateak garrantzitsua izan behar al du halako ekimenetan?


Amarako Ernest Lluch Kultur etxearekin kontaktua egin eta bideo domestikoak auto editatzeko tailerra antolatzea deliberatu genuen, teknologia semi-profesional honek modu merke eta erabilkorrean gauzak egiteko aukera ematen duelako (bideo digital bat, objektibo irekiak eta ordenadore portatila nahikoak dira). Kultur etxe hau aukeratu genuen Anoetako skate parketik oso gertu dagoelako. Bertan ibiltzen diren 13-20 urte bitarteko gazteei eskaini nahi diegu. Instituzioak jabetzen dira sormen handiko jende askok ihes egiten diela (euren zerbitzuak erabiltzen ez dituztenak) euren proposamenak askotan ez dutelako batere irauten... adibide polita da iazko udako Representa04 graffiti edizioa: Antolatzaileak mugimenduaren ukitu artistikoa bilatzen bazuten ere (pintura erakusketekin eta itxura eskaseko pareta batean eginiko murala adibide) eta aipatutako kultur etxearen laguntza bazuten ere, ezin izan zuten Bella Easoko alkate errepikorraren debekua saihestu eta ekintza honen jarraipena bertan behera geratu zen.

Programan patinatu daitekeen eskultura baten proiektua ere aipatzen duzue eta horren atzean dagoen kalearen inguruko hausnarketa oso interesgarria iruditzen zaigu...kontaiguzuz zerbait honen inguruan...

Guzti hau pasadan udazkenean Winstan Whitter ingelesarekin kontaktatu genuenean hasi zen. London inguruko skatearen historiari buruzko dokumental interesgarria egin zuen ("Rollin' trough the decades"). Bere web orrian "Moving Units" izeneko proiektura lotura zuela ikusi genuen. Proiektu hau, London hirian, han-hemenka patinatu daitezkeen eskulturak jartzean datza (altzairu urbanoarekin antza handia duten eskulturak). Beranduago Kingpin Skateboarding European artikulu itzel bat irakurri genuen eta gauza bera egitea deliberatu genuen. Proiektua oraindik garatzen ari gara baina asmoa granitoko modulu bat erosi (jendea esertzen den horietakoa), Donostiako Kursaal aurrean dauden modukoak edo Bilboko Guggenheim museotik gertu dagoen Uribitarten dauden modukoak. Gero espazio publiko batean jarri genuke, kamuflaturik, modu horretan skater-a bertan patinatzen harrapatzen badute, berehala esan dezake aitzakia gisa berez ilegala den eskultura batetan patinatzen ari dela. Santiago Cirugeda Sevillako arkitekto apurtailearen influentzia izan genuen legeak dituen zirrikituak bilatu eta erabiltzerako orduan hiritar anonimoen pozerako.

Artelekun ere jardunaldia antolatu duzue skatea eta artea uztartzuz....

Hala da. Aurtengo jaialdia uztailaren 28an hasten da, goizez, Artelekuko hitzaldi aretoan. Prentsa aurreko batekin hasiko gara eta gonbidatu garrantzitsu batzuekin: Alemaniako "Hessenmob skateboardstik" datorren Christian Roth (eguerdian erakutsiko dugun skate-art kontzeptuaren inguruan "Mobernist" izeneko dokumentalaren egilea), Carlos Purillo bilbotarra ere izango da, Euskal Herriak nazioartean duen konpainiarik esanguratsuenatik datorrena (Alai skateboards) eta Iraola anaiak, European aintzindariak izan den mugako Jart faktoria irundarrekoak. Gonbidatuetntzat gune egoki eta eroso bat sortu nahi dugu skate munduan bideoak duen garrantziaz egingo zaizkien galderei erantzun dezaten. Hutsune handia dago skatearen ekoizpen kulturallean eta horregatik erabaki dugu honi erreparatzea dokumentu bideografikoa oinarri hartuta.... zeinak informazio atletiko, estetiko, urbano eta antropologiko ugari eskaintzen duen. Sesio eta bideo proiektio guztiak muxutruk dira, the balde, beraz bertan ikusi nahi zaitugu!!!



enara bakar batek ez du uda ekartzen.
one swallow doesn't make a summer.
(aristotele)

zerura begiratu eta ea ikusten duzun enara bakartirik... (lorazaina)
look up into the sky and trie to see a solitary swallow... (the gardener)





santxeskirik gabe ez!!

not without my santxeski!

Nork ez du oroitzen laranja koloreko sancheski mitikoa? Eskumutur, txorkatila eta belaua ugarik daramate orbainetan tatuaturik gure haurtzaroko tramankulu hura. Ikastolatik etxera itzuli eta esku batean ogitartekoa eta bestean patinetea hartuta ateratzen ginen kalera. Hainbesterako zen, egun skateboard edo patineteari, gutariko askok oraindik "santxeski" esaten diogula. Orduan ez genekien, baina historia bitxia duen altxor txiki baten jabe ginen.




Who doesn't remember the mythical orange Sancheski? Lots of people have that childhood gadget of ours tattooed in scars on our wrists, ankles and knees. Just back from school, we'd head out with a sandwich in one hand and our skateboard in the other. It got to the stage that even nowadays, a lot of us still call skateboards "Santxeskis". We didn't know it at the time but we were the owners of a little treasure that has a rather curious history behind it.





Irungo Sánchez familia eta eskiatzeko zaletasuna bat egin zutenean sortu zen mitoa. Sánchez-ski. Sancheski. 30. hamarkadan hasi ziren skiak fabrikatzen. Beranduago, aitari bi semeak batu zitzaizkion. Urteekin ordea, Frantzia eta Austriatik zetozen eskiak merkatuan aldaketak eragin zituzten. Sanchez anaiek orduan euren beste zaletasun bati erreparatu zioten: errepideetan, 4 gurpilen gainean labaintzen ziren oholei. Eta skateboard-ak egiten hasiko zirela erabaki zuten. Modu horretan sortu zen Europa mailan aitzindaria izan zen skateboard marka. Duela 35 urte gertatu zen hori. Gainera, ez ziren "santxeskiak" egitearekin konformatu. Skate talde bat osatu zuten eta bertan gure herrian aitzindariak izan ziren Ricardo Damborenea, Pedro Aranzabal, Ramon Aguirre, Iñaki Beloki eta abar egon ziren.

The myth was brought to life when the Sanchez family in Irun got into skiing. Sanchez-ski. Sancheski. They started making skis in the 30s. The father was later joined by his two sons. However, as the years passed, imported skis from Austria and France started to have an effect on the market. The Sanchez brothers took a deeper look at another of their interests: a board placed across four wheels bombing down any old road. So they decided to start making skateboards. That's how they became an institution at making skateboards at European level. This all happened 35 years ago. They also went one step further than the "Santxeskis" and founded a skate team. Some of the forefathers of skateboarding in The Basque Country – Ricardo Damborenea, Pedro Aranzabal, Ramon Aguirre, Iñaki Beloki etc. – were all members.





Egungo gazte askorentzat, irudiok, skatea-ren historiaurrekoak izan dira. Baina gutariko batzuentzat, askatasun eta abiadura zirrara eman zigun gure lehen ibilgailuaren memoria gorde eta islatzen dute. Nik, jaunartzea auzoko lagunekin egin nuen. Jaunartze egunean, Asier bere santxeski laranjaekin azaldu zen elizara. Hain egun seinaturako jantzi beharreko arrokekin izan genuen etxean bronka lagun guztiok. Asierrek ere izan zuen berea. Lortu zuten hura ere panpinez jantzea. Baina elizara abiatu behar zirenean, ohe buruari eutsi eta negar batean zera esan zien gurasoei: -Santxeskirik gabe ez!

Eta Asierren santxeski laranja ere gurekin jaunartzea egin zuen.

For lots of today's youngsters, the pictures will look like something from prehistoric skateboard times. But for some of us, these pictures bring back memories of the first machines that gave us a taste of freedom and shivers of speed. I made my First Communion with a lads from the neighbourhood. When the big day arrived, Asier turned up at the church with his orange Sancheski. We all had murder at home about the clothes with had to wear for the "day." Asier had a big row with his folks as well. In the end they had him dolled up to the nines like the rest of us. But as they were just about to leave the house for the church, Asier grabbed hold of the bed post and sobbed at his parents: -Not without my Sancheski!

So Asier's Sancheski made its First Communion with us that day.



edizioak eta inpresioak orokorrean
 editing and printing in general

espacegrafic

INPRIMAKIAK
 KATALOGOAK
 LIBURUAK
 LIBURUSKAK
 ALDIZKARIAK
 AURREINPRESIOA

FORMS
 CATALOGUES
 BOOKS
 BROCHURES
 MAGAZINES
 PREPRINTING

P. I. Mutilva Baja, calle G, nº 11
 Tel.948 23 93 36 - Fax 948 23 82 16
 e-mail: espacegrafic@infonegocio.com
 31192 Mutilva Baja (Navarra)

what the f***...?

brankajazz ostegunero 20-22 h
 The Heckler Quartet, Iñaki Salvador,
 Dinamic Trio, Natalia Calderón,
 Urban Art Quartet, The Poor Winners,
 and more audio-sweets...

brankamusik ostiral/larunbatero 23-2 h
 Putxero, Imanol Costas, Dreadrive SoundSystem,
 Makala, Parrucho, SYR, Selektah Kolektiboa,
 Revolutionary Brothers, Mr. Snoiz, Manu Drum,
 and more blacky power...

€Txillida Ibiltokia 13 (haizeen orrazia) Donostia

ENTZUN! 44 UDAKO SUA

SURFIN KAOS, LUNGFISH, UNSANE, MATT ELLIOT, GATIBU,
 LOS PADRINOS, XABALTX, SAME OLD, YA TE DIGO, KURAI,
 ALOS QUARTET, GARZÓN, THE BEATS OF BOURBON, DIKERS, AMIMISHOCK
Atzera Begira: Minutemen **Dossiera:** grabazio estudioak logelan

URTEKO HARPIDETZA
 15 EURO
entzun@entzun.com

WWW.ENTZUN.COM WWW.ENTZUN.COM WWW.ENTZUN.COM
 jada abian jada abian jada abian jada abian jada abian jada abian jada abian jada abian



testua / by: elektro



AUDIO



DELOREAN

"Metropolitan death"
Bcore 2005

Ez dira zarauztarrak, martitzarrak dira. Kostaldeko laukote honek lan berria dakar eta bertan lau kantu berri entzun ditzakegu. Abesti horien beste bost nahasketa ere aurkituko ditugu, besteak beste Undo & Vicknoise bezalako dj eta ekoizleen eskutik. Baxu eta bonboa gaineratu dira Deloreanen musikan, festa eta elektronikaren mesederako. Ispiluzko bola martxan da berriro...

They aren't from Zarautz, but from Mars. This coastal band comes with a new album in which there are four new releases. There are also five mixes of these songs of people such as Undo & Vicknoise Dj's and producers. There is an increase in the bass and the bass drum in the music of DeLorean in favor of party and music. The disco ball is coming again...

MAXIMO PARK

"A certain trigger"
Warp Records 2005

Askok maite eta beste askok gorroto duten talde horietako bat da hau. Eta hori, kritika espezializatuak disko bakarraren biziraupena eman diolako. Ba nik hemen hauen musika defendatu nahi dut guzti horretatik ihes eginda. Azken aldian modan dauden rock doinuak datoz hemen, baina beste askok egiten ez duten eta ez dakiten moduan, beste formatu bat eskaintzen digute: guztiz sendoa dena.

This is a band who many people like and many other hate. In spite of the fact that the specialized critics have assured the continuation of their only album. Far from what is said, I want to defend their music here and now. Here there are the last rock melodies and besides, they offer a new format that others don't do: a completely and strong one.

LISABÖ

"Izkiriaturik aurkitu ditudan gurak"
Metak 2005

Ezustean harrapatu gaitu Lisabören lan berriak. Bagenekien zerbaitetan zebiltzala baina eskuartean dugun lan berria ezusteko ederra izan da.

Aldaketak izan dira taldekideen artean egitura bera handituz. Horretaz gain disko berezia da hau, pil pil sessions azpizigiluaren eskaintzarekin bat egiten duena. Manta Ray, Experience edo Anari-ren laguntza izan dute besteak beste.

We came across Lisabö's new projects by chance. We knew they had something in hand, but this work has been a complete surprise. There have been some changes and the structure of the band has changed. Besides, this is a special album that comes together with the offer of the Pil Pil Sessions. There are collaborations of Manta Ray, Experience and Anari...

M.I.A.

"Arular"
XL Recordings 2005

Emakumea baino pantera bat dugu honako hau. Oihanetik zuzenean estudio batera eta ondoren eskenatokietara salto egin duena. Guztiok erori gara bere atzamarketan gauza asko lortu baititu M.I.A.-k. Irudimen handiz sortutako diskoa dakar, sailkatzea ere zaila egiten zaiguna eta hori azkenaldian faltan botatzen genuen zerbait da. Hip hop, dance hall, elektronika eta giro tradizionalak... mikroa arma batean bilakatzen denean...

This seems more a panther than a woman that jumps directly from the jungle to the studios. We have all fallen into her clutches for M.I.A. has achieved many things. She comes with a very imaginative album, an album that is difficult to classify; a fact that we lately missed. Hip hop, dance hall, electronic music and traditional sounds... when a micro becomes a weapon...

eskozia maite....atzo goizean ikusi zintudan...

Ama eskoziarra izan nahi dut!!! Bai ama, berriro jai
nahi dut eta Eskozian gainera, hango komuneko
paretetan ze pintada egiten duten ikusi nahi dut. Rock
talde bat sortu ostean munduari bira eman nahi diot!!!
Amaaaaaa!!!! (Beranduegi, komuneko bonba sakatu
eta hondakin espiral batean itotzen naiz, jarr...).

Eskoziako komunik zikinena

Maiz gure herri eta hirietako komunitan nabigatzen dugu gau
partean galtzeko. Boligrafo edo errotugailu bat hartu eta komuneko
paretetan zerbait margotu edo idazten dugu pixa edo kaka egin,
lerro batzuk prestatu edo norbaitekin sexua praktikatzan dugun
bitartean (hau normalean ez da gertatzen). 1996. urtean denok
matxinatu ginen Rentonen albora Edinburgoko droga eszenan
oinarritutako Trainspotting filmari esker. Orduan barneratu ginen
lehendabizikoz Eskoziako komunik zikinenean (ez dakit ze marrazki
eta esaldik jositako paretan artean). Orain berriro hurbiltzen gara
gaita, gona eta whiskyaren lurraldera, hori bai, azkenaldian handik
datozen oihartzun musikalek deituta.

Bost miloi biztanle inguru biztanle dituen herri honek
musika intentsitate handia du. Artikulu hau Mylo deituriko
proiektua ezagutu eta gero sortu da. Bereziki harritu ninduen
"Destroy rock n'roll" deituriko diskoak, 2004ean Breast
Fed diskoetxeak argitaratu. Myles Macinnes (25 urtekoa)
izkututzen da Mylo deituraren atzean. Filosofia ikasketak
amaituta musika egiteari ekin zion, disko honekin
elektronika beste modu fresko eta dibertigarriago batean
ulertzeko aukera dugu.



Komuneko historiek jarraituz Primavera Sound jaialdian izan
ginen (hemen egia esan ez dira oso komenigarriak, badakizu
plastikozko horietan... ezer gutxi). Han izen handien artean bi
erreferentzi oso gustoko izan nituen: Sons & Daughters eta Dogs
Die In Hot Cars. Ez dute erlazio askorik haien artean. Lehenek
rock gordina lantzen dute, sarri mandolina batekin laguntzen
dituztelarik euren kantuek. 82. urtean Australian sortutako telesail
bati egiten dio erreferentzia izenak, nahiz eta egiten dutenak
zerikusi gutxi duen datu honekin. Arab Strab hunkigarrien bira
batean sortutako taldea da (hauek ere eskoziarrak). Zazpi kantuk
osatutako "Love The Cup" lana aurkezten zuten Bartzelonan, nahiz
eta dagoeneko "The Repulsion Box" diskoak ere kalean behar
duen. Ia ahaztu ditudan Dogs Die in Hot Cars deitura guztiz
erakargarria duen taldeak beste estilo batzuk jorratzen ditu:
rocketik, ska eta popera doazena alegia. "I love you 'cause i have
to" da taldearen abesti ezagunenetakoa. Erritmo eskizofreniko
batean aurkezten diguten ska pop himno bat da. "Please describe
yourself" da taldearen lehen diskoa 2004. urtekoa, nahiz eta
badirudien bigarrena ere prestatzen dihardutela.

Duela gutxi Euskal Herriko komun guztietako paretetan margo
berdinak daudela konturatu direnak Motormark-eko kideak dira.
Bilbon izan dira duela hilabete eskas. Hauek elektronika eta rocka
bortzatzen dute "Chrome Tape" lan berrian, Digital Hardcore
diskoetxearen eskutik argitaratua (bai bai, Alec Empire
zaratatsuaren esanetara).
Badirudi artikulu hau idaztean benetan tipo interesgarri, guay eta
madarikatu bat bilakatu nahi izan dudala komun ilun, ezezagun
eta galduek aurkeztuaz. Baina bada bestelako usaiak dastatu
daitezkeen komunik ere inguru hartan. Loreak, arrosak eta
arrakastaren komuneko paper akoltxatuek badute lekuri: hor
daude Teenage Fanclub, Belle & Sebastian edo Franz Ferdinand
(zuetako askok konturatu gabe U2-ren aurretik ikusi zenituztenak).
Edo bestelako eremuak lantzen dituztenak: Mogway, The Delgados
(jada bananduak), Nice Man (Teenage Fanclub-eko baterijolearen
proiektu paraleloa), Camera Obscura, Bis (hemengo bi kide Dirty
Hospital-en aurkituko ditugularik haien Rotten Row diskoetxean
lanak kaleratuaz) etab...

Guzti honetan zer esan handia dauka Chemical Underground
diskoetxeak. Bere garaian The Delgados taldekoek sortua eta
erreferentzia hauetako askoren arduradunak ditugunak. Jaialdiei
dagokienez musikari berriak bultzatzeko Go North Festival
(www.goevents.info) antolatzen dute. Horri gainera T in the Park
(www.tinhepark.com) erraldoia gaineratu behar diogu, nazioarteko
artista ezagunetz bateriko jaialdia.



testua/by: arkaitz billar


dear scotland... i saw you yesterday morning...

Mum, I want to be Scottish!!! Yes mum, I want to be born again and in Scotland. I want to see the daubs in the toilet walls. After having formed a music band, I want to go round the world!!! Muuuuum!!! (Too late, I am going down the water closet and I am drowning in a spiral of residue...)

the dirtiest toilet in scotland

We often sail in the city toilets to get lost in the night. We take a pen or a marking pen and we draw or write something in the walls of the toilet while we are having a pee or a shit or practicing sex with somebody else (this isn't very likely to happen). In 1996 all of us rebelled with Renton thanks to Trainspotting, the film that showed the drug scene in Edinburgh. This is the first time we submerged into the dirtiest water closet in Scotland (I don't know among which of these walls full of drawings). We are back again in the country of pipes, kilts and whisky, but this time we have been attracted by the musical echoes that come from there.

The music from this country of five million inhabitants is very intense. This article was created after we knew the project called Mylo. I was highly surprised by the "Destroy rock n' roll" album, published by Breast Fed in 2004. It is Myles Macinnes (25 years old) behind the name of Mylo. He went into music after finishing his studies of philosophy. We get the chance of understanding electronic in a fresher and more amusing way.



We take up again the topic of toilets to talk about the Primavera Sound festival (the toilets here are inadvisable because they are made of plastic and so...) Among the big ones, we specially liked these two references: Sons & Daughters and Dogs Die In Hot Cars. They don't have very much in common. The first ones play raw rock often with a mandolin. Their name makes reference to an Australian series of 1982. What they do has nothing to do with this, though. This is a band created in the tour of Arab Strab (Scottish too). They showed the project "Love The Cup" in Barcelona, although they had already published the album "The Repulsion Box". Dogs Die In Hot Cars play a completely different kind of music: rock, ska and pop. "I love you 'cause I have to" is their most known song. A ska pop hymn with schizophrenic rhythms. "Please describe yourself" is the name of their first album from 2004. However, it seems they are preparing their second one.

It is the members of Motormark who realized that the drawings of the toilets in the Basque country are all the same. They were in Bilbao few months ago. They play electronic and rock in their new album, "Chrome Tape", published by Digital Hardcore (yes, obeying to Alec Empire).

It seems that, while writing this article, I wanted to become an interesting and cool guy by showing dark, unknown and lost toilets. However, there are other toilets where you can taste other kind of smells. Flowers, roses and the soft paper of toilets have a place: Teenage Fanclub, Belle & Sebastian or Franz Ferdinand (yes, those you saw before U2). Those who work different fields: Mogway, The Delgados (they already came apart), Nice Man (a parallel project of the drum of Teenage Club), Camera Obscura, Bis (we can find two members of this band in Dirty Hospital, with their works by the Rotten Row publishing house) etc...


The Chemikal Underground publishing house plays an important role in this. They are responsible for the creation of the The Delgados band and many other references. According to festivals, they organized Go North Festival (www.goevents.info) to promote new musicians. Apart from this, there is also the T in the Park festival (www.tinthePark.com), an event full of widely known international artists.

Jim Jarmusch-en zineari buruz hitz egiterakoan, bakoitzaren iritzia subjektiboa dela argitzea beharrezkoa dela deritzot; Jarmusch-ek jarraitzaile sutsuak eta muturreko etsaiak dituelako. Bagara ere, film batzuk zoragarriak iruditzen zaizkigun moduan beste batzuk aspergarriak izatera iritsi daitezkeela uste dugunak. Baina ezin da ukatu, egun, zine klonikoaren garaian, Jarmusch begirada propioa duen zinemagilea dela. Eta hori, behin eta berriro errepikatzen badugu ere, txalagarria da. Industriak zinemagintzaren eremu guztiak irensten dituen garaian Jarmusch-ek bere izaera eta independentziari eusten dio <<Beti negoziatzen dut nire filmen finantziazioa pistola bat eskuetan dudala. Ezin badut niri gustatzen zaidan moduan lanik egin... ez dut lanik egiten>>. Jarmusch 1953an jaio zen Akron, Ohion. Unibertsitatean kazetaritza ikasten hasi zen baina bat batean, bizitza aldatuko zion erabakia hartu zuen. Kazetaritza utzi eta Parisera joatea erabaki zuen. Bertan maitemindu zen frantziar zinemarekin. Urtebeteren ostean NY-era itzuli eta New York University-n zinema ikasketak egiteari ekin zion. Bertan Nicholas Ray ezagutu eta haren laguntzarekin bere lehendabiziko filma egin zuen 16mm-tan (Permanent Vacation). Ondorengo urteetan bere lanak Cannes-ko jaialdiko antolatzaileen fetitxe bihurtu ziren (Stranger Than Paradise, Down By Law, Mystery Train). Jarmusch-ek beste gauza guztien gainetik zinea maite eta ezagutzen du. Zinema frantses eta japoniar ikusle amorratua da. Bere filmetan, bi eskola horien ukituak sumatu ditzakegu han eta hemen. Askotan ordea, zinea gehiegi maitatzeak, min ematen du <<Tarantinoren gauza batzuk gustatzen zaizkit baina sutan jartzen nau edaten duen film eta zuzendari ei dien errespetu

faltak. Oso berandu aitortu zuen Reservoir Dogs, Hong Kong hiriko Ringo Lam zuzendariaren City of Fire filmaren ia iguala dela. Sergio Leonek gauza bera egin zuen Kurosawarekin>>. Jarmusch-en jarrera ez da garbizalea. Aipatu bezala, zinema frantsesa eta maisu japoniarrengatik edaten dute bere filmek ere. Jarmusch-ek argi du zinea ezin dela zer bait purua izan: <<Rap-a sampling-ari esker bizi da eta berau arte bihurtzen du. Ghost Dog-en ez nuen ezer kopiatu, maite ditudan pelikula eta liburuetatik zatiak hartu nituen. Eta hau ez da gauza berria. Ezin da bat batean zinea egiteko modu berri eta postmoderno batetaz hitz egin. Zinea metatzen doan esperientzia da. European omenaldia esaten diote AEBtan plagio esaten diogunari. Niretzat ideia original kontzeptuak ez luke existitu behar. Bestetik ez ditut maite sorkuntzan puru eta bakanak diren kontzeptu handiak. Horietako oso gutxi dira interesgarriak>>.

Galtzaileak maite ditu zuzendari ilezuriak, baina ez galtzaile heroiko edo dramatikoa. Hezur haragizkoak dira Jarmusch-en heroiak; mina tatuajeen bidez sendatzen saiatzen dira, malkorik isuri gabe negar egiten dute, zorigaitzaren aurrean harropuz azaltzen dira, lorik egingo ez dutela jakinda oheratzen dira. Gutariko edonork barruan daraman galtzaileak da bere filmetako protagonista. Jarmusch-ek, maite dituen film, paisaia, musika eta liburuak erakusten dizkigu; bere munduaren proiektzioa eskaintzen digu. Eta isla horrek, une batez gogora arazten digu bizitza edertasunez eta tristeziatz gainezka egiten duela.

Broken Flowers da Jim Jarmusch-ek aurkeztu duen azken lana. Cannes-ko jaialdian izan zen estreinaldia eta bertako kritikoek, ohi duten moduan, euren "seme amerikarra" txalotu zuten. Pelikula honetan giza harremanen inguruan hausnartzen du beste behin Jarmusch-ek. Soltero eta bihotz apurtzaile orori iristen zaio dekadentzia aroa. Bere azken amoranteak uzten duen uanean iristen zaio protagonistari iraganeko amorante baten eskutitza. Eskutitzan duela 20 urte haurdun geratu zela kontatzen dio eta harreman hartatik sortutako semea bere aitaren bila dabilela azaltzen dio. Eskutitza ordea ez dago sinatua. Ez daki nor izan daitekeen bere semearen ama. Eta iraganeko amoranteen bilaketa lanari ekingo dio une horretatik aurrera ...Road movie hontako protagonista Bill Murray da eta bere amoranteen paperetan Sharon Stone, Frances Conroy, Jessica Lange eta Tilda Swinton ikusiko ditugu.



Jim Jarmusch's latest film is Broken Flowers. It premiered at Cannes and the critics their had nothing but praise for their "American son." Once again Jarmusch centres on human relationships in the film. All single people and heartbreakers go through a time of decadence in the end. The star of the film gets a letter from an old lover the day they leave their present one. The letter explains that the girl got pregnant 20 years ago and that the child she bore from that relationship is now looking for their father. The letter isn't signed. He doesn't know who the mother of the child could be. So he starts looking for all his ex-lovers... Bill Murray is the star of this road movie and Sharon Stone, Frances Conroy, Jessica Lange and Tilda Swinton play the parts of his past lovers.

When we talk about Jim Jarmusch's films, I think it's necessary to point out that everybody's opinion is subjective because Jarmusch has fiercely loyal followers and people who hate his work outright at the same time. There are also some of us who think that some of his work is near incredible while other work he has done can be downright boring. What cannot be denied however, is that in this day and age of cloning in filmmaking, Jarmusch certainly has his very own angle on doing things. And that, although it may come across as being repetitive, is always praiseworthy. The industry that is filmmaking has now taken control over all aspects of what is being made, yet Jarmusch stubbornly refuses to relinquish his personality and independence: *"When I negotiate the financing of any of my films, I do it with a gun in my hand. If I can't make the film I want to... I don't make it."*

Jarmusch was born in Akron, Ohio in 1953. He was studying journalism at university until he made a decision that would change his life. He decided to drop journalism and move to Paris. There, he fell in love with French cinema. A year later he returned to New York and he studied filmmaking at New York University. He met Nicholas Ray there and

with his help, he made his first film – Permanent Vacation – in 16mm. During the following years, his work became a kind of fetish at the Cannes Film Festival (Stranger Than Paradise, Down By Law, Mystery Train.) Above all, Jarmusch knows and loves cinema. He is an avid viewer of French and Japanese cinema. Traces of these two schools of filmmaking can clearly be seen here and there in his work. Sometimes though, too much love of cinema can be painful: *"I like some stuff by Tarantino but his lack of respect for the directors who inspire him really pisses me off. It took him along time to admit that his reservoir Dogs is almost the same as Hong Kong director Ringo Lam's City of Fire. Sergio Leone did the same thing with Kurosawa."* Jarmusch is not a purist. As I've mentioned before, his work is influenced by the French and Japanese masters. Jarmusch believes that cinema can never be a pure thing: *"Rap lives on sampling and in itself has become an art form. I didn't copy anything in Ghost Dog, rather I took parts from films and books that I love. And that's nothing new. You can just suddenly start talking about a new and post modern way of making movies. Cinema is an accumulative experience. What you call homage in Europe is called plagiarism in the USA. In my view the original idea concept shouldn't exist. I don't really like these pure and unique grandiose ideas in creativity. Very few of them are of interest."*

The silver-haired director loves losers, but not the dramatic heroic type. Jarmusch's heroes are made of flesh and bone; they heal their scars through tattoos, they cry without shedding tears, they are arrogant in the face of misfortune, they go to bed though they know they will not be able to sleep. The loser inside anyone of us could be the star of his film. Jarmusch shows us the books, films, scenery and music he loves; he offers us a projection of his world. And that reflection of his world reminds us for an instant that the world is full of beauty and sadness.

JIM JARMUSCH

